

IRAKASLEAK

Terese Mendiguren: Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Kazetaritza Saileko irakasle agregatua. Gaur egun, lokuzioarekin lotutako irakasgaietako irakaslea da (Informazio Lokuzioa eta Komunikazio Emozionala). Ikertzaile Nagusia izan da Informazio Lokuzioarekin lotutako HBP batean. Bere esperientzia profesionala telebistarekin lotuta egon da.

Irati Agirreazkuenaga: Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Kazetaritza Saileko irakasle atxikia. Azkeneko hiru urtetan Informazio Lokuzioa irakasgaiko irakasle izan da eta, gaur egun, Informazio Lokuzioaz gain Komunikazio Emozionala ere irakasten du. Bere esperientzia profesionala irrati eta telebistarekin lotuta egon da nagusiki.

Iñigo Marauri: Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Kazetaritza Saileko irakasle agregatua. Bost urtez, Informazio Lokuzioa irakasgaia eman du. Irratian eta telebistan lan egin du, nahiz eta bere esperientzia profesionala kazetaritza idatzian oinarritzen den.